

**GIZARTE-ZERBITZUEN ERAKUNDE ARTEKO ORGANOAK 2015EKO MAIATZAREN
14AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.**

EGUNA: 2015eko maiatzaren 14a.

TOKIA: EUSKO JAURLARITZAREN LAKUAKO EGOITZA (3. aretoa)

HASIERA-ORDUA: 16:00.

AMAIERA-ORDUA: 16:20.

BERTARATUAK:

PRESIDENTEA: Angel Toña Guenaga jauna, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.

KIDEAK:

- Eusko Jaurlaritzaren ordezkari:

- Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jauna, Gizarte Politiketako sailburuordea.
- Jose Luis Madrazo Juanes jauna, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendaria.
- Lide Amilibia Bergaretxe andrea, Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.
- Hernando Lacalle Edeso jauna, Aurrekontuen zuzendaria.
- Estefanía Gordoá Ríos andrea, Lan Harremanen zuzendaria.

- Foru-aldundietako ordezkari:

- Maria Pilar Ardanza Uribarren andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako foru-diputatua.
- Ander Rodríguez Lejarza jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako foru-diputatua.

- Marta Alaña Alonso andrea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako foru-diputatua.
- María del Río Pereda andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako zuzendari nagusia.
- Sergio Murillo Corzo jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Menpekotasunaren Arretarako zuzendari nagusia.
- Paloma Aranceta Arilla andrea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteko ordezkari:

- Ainhoa Domaica Goñi andrea, Gasteizko zinegotzia.
- M^a Jose Blanco Gaviero andrea, Portugaleteko zinegotzia.

Gonbidatuta:

- Mar Zabala Mardaras andrea, EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteko zuzendari nagusia.
- Emilio Sola Ballojera jauna, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko aholkularia.

GAI-ZERRENDA

- 1- Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea (2014/12/19).
- 2- Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoko (GZEO) kideen agintearen amaiera.

Aipatutako pertsonak bertaratuta, hasiera eman zaio bilerari.

- 1- Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea (2014/12/19).**

Akta onartu da.

- 2- Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoko (GZEO) kideen agintearen amaiera.**

Iñigo Pombo jaunak hitza hartu du, eta ziklo-amaiera batean gaudela adierazi. Maiatzean udal- eta foru-hauteskundeak egingo dira, foru-aldundietako eta udaletako egungo ordezkariekin egiten den lana amaituko da, eta esan du gobernua pozik dagoela, eskertuta, guztiek egindako lanagatik.

Pilar Ardanza andreak ere uste du lan handia izan dela aldi honetan, ondo gauzatu dela, eta gehitu du akordioa ona dela herrialde osoarentzat, eta arduraz jokatu dela.

Dekretua gutxi gorabehera noiz argitaratuko den galdetu du, eta sailburuak erantzun du urtarrilaren 30ean jarri zela “tramitagune” atarian. Otsailaren 2an Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordera (EGAB) igorri zen, eta martxoaren 7an, berriz, Sailak txostena jaso zuen. Martxoaren 23an, dekretua Kontrol Ekonomikoko Bulegora bidali zen, zeina, hilabete bat baitauka bere txostena emateko, eta, ondoren, Aholku Batzorde Juridikoari igorriko zaio, bi hilabetean berea eman dezan. Aholku Batzorde Juridikoaren ondoren, Gobernu Kontseiluari bidaliko zaio, onartzeko eta geroago EHAAr argitaratzeko.

Txostenak emateko epeak betetzen badira, uztailaren amaieran Gobernu Kontseiluan onar liteke zorroari buruzko dekretua. Iñigo Pombo jaunak gehitu du garrantzitsua dela dekretua onartuta egotea urrian Finantzen Euskal Kontseilua biltzen denerako, bilera horretan 2016. urterako 10 milioi euroak bideratuko direlako.

Ander Rodriguezek esan du Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa onartuko duela aurki, eta gobernuari bidaliko diola, EAEko mapari erants diezaion, erabaki zen bezala.

Kezka-iturri diren beste dekretu edo araudi batzuk:

- Hirugarren sektore sozialari buruzko legea: Legebiltzarrerara bidalita dago, bertan bidea egin dezan.
- Arreta goiztiarrari buruzko dekretua: Marta Alañak Arabako Foru Aldundiak dekretu honetaz duen jarrera gogorarazi du: oraindik ere zalantza dago esku hartzen duen sistema bakoitzaren eskumenei eta finantzaketari dagokienez.
- Haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzeko dekretua: ez datoz bat dekretuak langileentzat eskatzen dituen titulazioak eta lurralderen bateko errealitatea. Aztertu egin behar da, eta konpondu.

Idazkaria

Presidentea

Sin. Lide Amilibia Bergaretxe andrea

Sin. Angel Toña Guenaga jauna